

# EAJ eta PSE-PSOEren arteko akordioaren ELAren balorazioa

Bilbo. 2013/9/24



[www.ela-sindikatu.org](http://www.ela-sindikatu.org)



**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

## Zergatik diogu EAJren eta PSE-PSOeren arteko akordioa iruzur soziala dela?

Agiri honetan azalduko dugunez, akordioaren sinatzaileek pentsa arazi nahi izan dute berari esker “Euskadi modernoago, solidarioago, iraunkorrago eta lehiakorragoa” lortuko dela, baina benetan hitzarmenaren edukiekin jarraipena izango dute orain arteko politiketik, hots, egoera honetara ekarri gaituzten berberak: Akordioan, berez, ez dago sakoneko neurririk egoera honetatik ateratzeko. Gauza bat esan eta justu kontrako edukidun politikak hitzartzea iruzur sozial izugarria dela uste du ELAk.

## Egoeraren ardura eurei dagokie ala ez?

Akordioaren sarreran esaten da ongizate-estatuaren murrizketaren errua European eta espainiar estatuan ezarritako neurri ekonomikoena dela, eta azpimarratzen da alderdi sinatzaileak ez datozela haiekin bat. Haatik, alderdiok Estatuan eta European erabakitako murrizketa berdinak aplikatu eta babestu dituzte, eta beste edonoren pareko ardura dute pairatzen dugun krisi eta ongizate-estatuaren gainbehera egoeran. Patxi Lopezen eta Iñigo Urkulluren gobernuek aurrekontuak zeharo moztu dituzte. PSOEek eta EAJk, Diputatuen Kongresuan, pentsioen eta lege laboralen erreforma guztiak babestu dituzte, beren botoa beharrezkoa zenetan. Enplegu publikoa murriztu dute, zerbitzu publikoen kaltetan, eta sektore publiko zein azpi-kontratetako langileen lan-baldintzak eta soldadak okertu dituzte. Hamarkadatan EAEn aplikatu den zerga-politika negargarriaren arduradun izan dira. Harritzekoa da orain esatea “bide horrekin ez gatoz bat”.

## Propaganda edo errealitatea?

Politika egiteko era honek gizartearen ezjakintasuna hedatzen laguntzen du; gehiengoaren oposiziorik gabe gauza garrantzitsuak erabakitzen jarraitzeko behar dutena. Egiten dutenaren aurkakoa esanez sinatzaileek saihestu egiten dute edukien eztabaida. Hitzartu dutena azaldu ordez diote beren akordioari esker dena ezin hobeto joango dela. Propaganda operazioaren atal bat da. Hain zuzen, operazio horrek botere ekonomiko eta mediatikoaren laguntza du; izan ere, beren mesedetan egiten diren politikak finkatzeko baliagarri baitzaie. Beraz, honelako akordioek herritarrak lokartzen saiatzeko dira; benetan hitzartutakoa ezkutatu egiten zaie.

## Zertan datza sinatutako akordioa?

Akordioak lau ardatz ditu: herri-administrazioaren tamaina, zerbitzu publikoak, ekonomia eta enplegua eta zerga-politika.

## Zer dio akordioak “administrazioaren erreforma”ri buruz?

Atal hau esaldi lausoz beteta dago, baina konpromiso konkreturik ez da aipatzen. “Euskal arkitektura instituzionalean bikoiztasunak eta solapamenduak” ekidin nahi dira, eta beren helburua da administrazioak “zerbitzu gehiago eta hobeak eskaintzea, modu eragingarriago eta lehiakorragoan”. Guztiak oso orokorra dirudien arren, mezua argia da: gertatzen ari denaren baitan, langile gutxiagok lan gehiago egin behar dute. Patronalak defendatzen duen berdina.

Gainera, akordioak hainbat irizpide ezarri nahi ditu: “mugikortasuna, malgutasuna eta produktibitatea gehitzea, arrazionalizazio eta modernizazio prozesu baten bidez”. Hots, arlo publikoan lan-baldintzen aurka zuzenean ekinez.

## Zerbitzu publikoei buruz aipatzen dena ongizate-estatu mantentzea al da?

Inondik ere ez. Akordioak dioenez, 2014an hezkuntza, osasungintza eta politika sozialetarako “luzapena izan duen aurrekontuan jasotako finantziario berdina bermatuko da”. Hots, 2014an ez da 2012an baino diru gehiago bideratuko osasungintzara, hezkuntzara, etxebizitzara edota Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentara. Gogorarazi behar da Europako azken postuetan gaudela gizarte gastuan. Hau oso albiste txarra da. Beharizan sozialak gero eta handiagoak direlarik, langabezia eta txirotasuna hedatzen ari denean, EAJren eta PSE-PSOeren artean akordioak diosku horretarako ez direla baliabide publikoak gehituko. Noski, erabaki honek murrizketa gehiago eta ongizate-estatuaren aurkako eraso berriak ekarriko ditu. Gure gizarte-eredua mantendu eta hobetu ordez, desegiten ari dira. Eta lasai asko geratzen dira.

## Ekonomia eta enplegua suspertzeko akordioa al da?

Hori propaganda da. Gehigarrietako baten izena horixe da, hain zuzen: “Ekonomia eta enplegua suspertzeko Akordioa”. Bertan esaten da “ekonomia eta enplegua suspertzea erabateko lehentasuna” direla. Horrelako esaldiak prentsaurrekoak eman eta iritzi publikoa manipulatzeko baino ez dira. Alabaina, akordioaren edukiak ez dauka horretatik ezer.

Benetan esan liteke akordioa krisia larriagotu duten eta langabezia gehitu duten politiken jarraipena dela:

- Ez dago neurri berririk. Egungo gobernuak aurreko legealdian indarrean zeuden politika eta programa berdinekin jarraitzen du, baina aurrekontu txikiagoz. Enplegu eta prestakuntzako politiketan Madrilen erabakitako jardunbideak ezartzen dira, guztiok badakigun arren porrot egin dutela. Enplegu Plana aurrez zegoenaren kopia hutsa da. Horrenbestez, ez da harritzekoa sinatutako hitzarmena ezagutzen genuenarekiko berdina izatea. Urkulluk egiten duena Patxi Lopezek egiten zuen, eta orain biek diote bide horri jarraitu behar zaiola.

- Inola ere ezin da esan ekonomia suspertuko denik edo enplegu gehiago sortuko denik. Zehazten den ia gauza bakarra da “RENOVE programei utsiko zaie... lehengo zuzkidura ekonomikoarekin”. Gainerako puntuak oso orokorrak dira eta ez dute neurri konkreturik aipatzen: “berrikuntza babestea”, “sektore industriala bultzatzeko estrategia”, “eskualde mailako planak garatzea”, etab. Politika hauek dagoeneko aplikatzen ari dira, baina ez dute arrakastarik, eta egungo gobernuaren planetan jasota daude.

- Beraz, krisiari eta langabeziari buruz zerbait egitekotan, akordioak okertu egiten ditu.

### **Enpleguaren kalitatea hobetzeko ba al dago neurririk?**

Ez. Gainera, 6 eta 18 hilabete arteko kontratuak diruz laguntzen jarraituko dute (“%100eraino”), baita enplegua “mantentzeko” lanaldia eta soldata murrizten duten enpresak ere. Horixe egiten ari dira. Kontratazioari subentzio eta hobariak ez dutela ezertarako balio erakutsi dute. Enpresei diru publikoa transferitzeko baino ez dira. Besterik gabe.

Lan baldintzetan adjudikazio publikoek duten eraginaz ez diote ezer sinatzaileek. Egun adjudikazioetan publikatzen diren orriak, enpresentzat (mozkinak masifikatzeaz soilik pentsatzen dutenak) gonbidapen bat dira hitzarmen kolektiboak ez betetzeko, enplegua suntsitzeko eta prekarioena den kontratazio partzialaz gehiegizko erabilera egiteko.

### **Egia da honetarako 6.290 milioi erabiliko direla?**

Ez. Akordioak dio datozen hiru urteetan 6.290 milioi euro bideratuko direla Ekonomia eta Enplegua suspertzeko Planera. Halere, ez da azaltzen zergatik esaten den hori, ez zenbat diru bideratuko den arlo bakoitzera. Areago,

esan dugun moduan, ez da aipatu ere egiten zer erabaki konkretu hartzeko asmoa duten; beraz, kopuru hauek propagandaren beste osagai bat dira, zerbait egiten ari delako itxurak egiteko.

Ez da inongo ataletan esaten neurri zehatz batera ere orain baino diru gehiago bideratuko denik; horrenbestez, Enplegu Planaren datuekin bezalaxe, ziurrenik diru hori aipatzen dutenean dagoeneko erabakitako partidetako kopuruak gehitzen ari dira (zeinak benetan murrizten ari baitira), edota ekarpen pribatuak edo beste erakunde batzuenak hartzen dira aintzat. Dena da baliagarri kopuru handiak ematekotan, jendeak pentsa dezan errealitatea kontrakoa dela. Beraz, emandako datuak ez dira sinesgarriak, ez zorrotzak, baina propagandarako baliatzen dituzte.

### **Erreforma fiskal handi bat erabaki dute?**

Esan liteke ia ezerezean geratu dela iragarritakoa. EAJk eta PSE-PSOEk hainbat hilabetez komunikabideetan errepikatu izan dute, bat ere informazio zehatzik eman gabe, arlo fiskalean akordio bat beharrezkoa zela. Halere, ikusiko dugunez, akordioaren hautua ukitu txiki batzuk egitea da, fiskalitateko arazoei benetan ekin gabe: soldatepeko ez direnen errentetan dagoen iruzur itzela eta zerga-politika injustua, errenta altuei eta kapitalari pribilegiozko tratua ematen diena. Bi arazoak medio Hego Euskal Herriko presio fiskala (BPGren %30,2) batez besteko europarra baino askoz apalagoa da (BPGren %38,8), eta baita espainiar Estatukoa baino baxuagoa ere...

EHko presio fiskala 2011n EB-27ko batez bestekoaren parean egon balitz, 7.435 milioi euro gehiago bilduko ziratekeen (5.295 EAEn, eta 2.140, Nafarroan).

### **Erreforma fiskalaren muina PFEZ eta Sozietateen gaineko Zerga dira. Egia al da PFEZarekin diru gehiago bilduko dela?**

Diru-sarrera publikoen gabeziak PFEZean aldaketa batzuk egitera behartu ditu. Ia-ia Bilduk Gipuzkoan PSE-EEren laguntzaz egin zuen erreforma errepikatu dute, baina ez dira hartaraino iritsi. ELAk orduan esan zuen Gipuzkoan onartu zen erreforma oso mugatua zela (Aldundiak berak aurreratu zuenez, 50 milioi euro), eta ezagutzen ari garen datu errealek arrazoia ematen digute. Hainbat agiritan frogatu izan dugunez, lurraldeen arteko zergetan ez dago alde handirik, eta eztabaida fiskala adierazpenen mailan geratzen da, batez ere.

Kontutan izanik Gipuzkoan erreformak ekarri dituen diru-sarrerera berriak eskasak izan direla, eta Araban eta Bizkaian dagoeneko aldaketa batzuk eginda zeudela, orain erabaki duten erreforma fiskalaren emaitza oso mugatua izango da. Hots, aldaketa txiki batzuk gorabehera, funtsean, guztiak berdin jarraituko du.

### **Kapitalak eta errenta altuek PFEZ gehiago ordainduko al dute?**

PFEZeko gehieneko tasaren igoera (egungo %45etik %46era 91.000 eurotik gorako oinarrirentzat, %47ra, 121.000 eurotik gora eta %49, 177.000 eurotik gora) aitorpenen %1,2ari baino ez dio eragingo. Espainiar estatuan tasa horiek handiagoak dira, eta zenbait autonomia-erkidegotan %56ra iristen dira. Egia da ere kapital errentei aplikatzen zaizkion tasak gehitu egingo direla, baina %1 lehen 15.000 eurorentzat, eta %3, hurrengo 15.000rentzat. Aldaketa ia hutsala da, kapitalari faborezko tratamendua mantentzen baitzaio lanaren %49ko tipo marjinalarekin alderatuta. Kapital errententzat egun dagoen pribilejiozko sistema Zapaterok aldatu zuen 2006an, eta Foru Ogasunek kopiatu egin zuten erabakia.

Aldaketa hauek gauzatuz gero, Araban eta Bizkaian bildutako dirua apur bat gehituko da, oso gutxi, eta Gipuzkoan zerbait bat jaitsiko litzateke (erreforma Gipuzkoan kapital-errententzat ezarritakoa baino piskat bat beherago geratzen delako; lurralde honetan tasa berdinak ezartzen dira, baina diru-sarrerara tartekak desberdinak dira). Dena dela, (eta hau oso larria da) neurriok ez dira iristen Rajoyk espainiar estaturako ezarri duen mailara.

### **Egia al da Sozietateen gaineko Zerga gehitu egingo dela?**

Ezin da esan hala izango denik. Zerga honetako hainbat neurri norantza horretan badoa ere (zenbait gastu kentzeko muga, gutxi erabiltzen diren kenketa batzuk kentzea, onura fiskalak mugatzea, etab.), beste batzuk kontrako aldera doaz (enpresek zerga gutxiago ordain ditzaten ezarritako erreserbak, orain arte %28ko tasa nominala ordaintzen zuen hainbat enpresak %24 ordainduko du). Horietako bat ere kuantifikatu ez denez, ez dakigu diru-bilketan izango duten azken eragina positiboa edo negatiboa izango den.

### **Enpresek gutxienez etekinen gaineko %13 ordaindu beharko al dute?**

Ez. Hori sinestarazi nahi digute, pentsa dezagun erreforma progresista izango dela. Baina benetan hizki txikiak baieztapen hau asko mugatzen du.

Akordioan gutxieneko tasa efektiboa %13 izango dela aipatzen da, baina bada hainbat salbuespen:

- Portzentaje hau %11ra jaisten da enpresa txiki eta mikroenpresetan, %9ra kooperatibetan eta %8ra kooperatiba txikiei dagokienez.
- Plantilla finkoa mantendu edo gehitzen duten enpresek tasa horiek 2 puntu gehiago murriztu ahal izango dituzte.
- Bestalde, gutxieneko tasarako I+G+i ez da aintzat hartuko, hots, portzentaje horien azpitik ordaintzeko baliatu ahal izango da. Gauza jakina da I+G+i kenketak egiteko edozein gastu mozorrotzeko erabiltzen dela, eta enpresek sarri baliatzen direla hortaz.
- Akordioak ezartzen du inbertsio kolektiboko erakundeek %1eko zerga ordainduko dutela (zerga gutxiago ordaintzeko helburuarekin sortzen diren erakundeak, fondo, ondasun edo eskubideak bildu, kudeatu edo inbertitzeko).

Beraz, Sozietateen gaineko Zergaren %13ko tasa efektibo minimoan salbuespen gehiegi dago, eta propagandarako erabiltzen da. Ez dirudi benetan enpresa askok zerga gehiago ordaintzea eragingo duenik.

### **Komunikabideetan ere asko aipatu da iruzur fiskalaren jazarpena. Akordio honek aurrerapenik ekarriko ote du?**

Iruzur Fiskalaren Jazarpenerako Batzorde bat sortzea proposatzen du (bertan Aldundiek eta Jaurlearitzak parte hartuko lukete), eta Foru Aldundien artean Lankidetzaren Hitzarmenak egitea informazioa elkartrukatzeko, baina Bizkaian izan ezik, hemen alderdi bi hauek gehiengo baitute, beste Aldundietan gehiengo osatu beharko da horretarako. Zerga-Koordinaziorako Organoaren eginkizunari lehentasuna ematen zaio; gune opako eta gardentasunik gabea, orain arte bezala, bertan onartzen jarraitzeko fiskalitateari dagozkion erabakiak. Inolako partehartzerik gabe.

Ez da konpromiso konkreturik aipatzen ikuskaritza gehitze aldera. Aipamen bat egiten da baliabide gehiago beharko dela iruzur fiskalaren jazarpenerako, baina betiere "bere ahalmenen neurriera eta antolakuntzan egin beharreko aldaketen baitan", hots, plantillaren gehitze errealik gabe.

Ezin daiteke esan iruzur fiskalaren jazarpena sinatzaileen lehentasuna denik.

### **Akordioak elusio fiskala aipatzen du (zerga gutxiago ordaintzeko bide legalak). Hau benetako aurrerapausoa ez al da?**

Gaia aipatzea aurrerapausotzat hartuz gero, hala izango da. Baina zehazki akordioak dioena mugatua da: zerga-araudia mantendu, eguneratu eta sakontzea, elusio fiskalerako aukerak mugatzearen, printzipio orokor batzuen arabera. Hots, huskeria bat.

### **Zertan geratzen da eztabaida eta parte hartze soziala?**

Ez dago ezer. Sinatzaileek, beren ildoan, ez dute ezer esaten fiskalitateari buruz ekin beharreko balizko eztabaida sozial bati buruz. Herritarrei parte hartzeko aukera emateaz ez da ezer esaten. Aitzitik, eztabaida oro ukatzeko borondatea dute. Hitz ematen dute adostutakoa ez dutela aldatuko, "gutxienez oraingo legealdi autonomikoak irauten duen bitartean". Honek esan nahi du gaurtik hasi eta 2016ra arte zergen inguruko eztabaida amaitu dela. Eskandalu soziala da berebiziko garrantzia duen gai bat horrela amaitu nahi izatea.

Egungo eredu fiskala oso bidegabea da, eta beharizan sozialak asetzeko adina diru ez du biltzen. Suediako ongizate-estatua izatea ezinezkoa da, euskal presio fiskalarekin. Amildegi sozialera garamatzen eredu hau behin betiko bihurtu nahi dute partehartze soziala ukatzeko estrategia honekin.

### **Egia da mahairatu duten erreforma fiskalak 2014-2016 epealdian 1.500 milioi euro gehiago biltzeko aukera emango duela?**

Ez. Ikusi dugu PFEZean eta Sozietateen gaineko Zergen proposatzen diren aldaketek bilduko den diruan eragin oso txikia izango dutela. Gainera, deigarria da neurri fiskalen eragin ekonomikoa ez kuantifikatzea. Akordioan jasotako zerga-aldaketa bat ere ez dute kuantifikatu. Ezta bat ere.

Hiru urtean bilduko omen diren 1.500 milioi euro gehiago horien kontua (urteko 500 milioi) pentsa arazi egin nahi izan dute, baina akordioak benetan ez du halakorik aipatzen. Kopuru hori, akordioaren arabera, erreforma fiskalaren, iruzurraren jazarpenaren eta "akordioan jasotako beste neurri" batzuen etekina izango da. Horixe

da amarrua.

### **Zertaz ari dira "akordioan jasotako beste neurri batzuk" diotenean?**

Akordioak "babesa emango zaiola Eusko Jaurlaritzari, Espainiako Gobernuarekin egingo den negoziaketan 2013rako ezarriko den defizitaren malgutzea %1,3ra hurbiltzea eta hurrengo urteotan %1eko portzentajera hurbiltzea lortzeko" jasotzen du. Aurreikusitakoa baino zerbait gehiago zorpetu daitekeela Eusko Jaurlaritza hurrengo urteetan uste dela esan nahi du honek. Adibidez, 2013an Eusko Jaurlaritzarentzat "onarturiko" defizita BPGaren %1,2 izango da azkenean, aurretiaz aurreikusitakoaren %0,7aren aldean. Urte betean 330 milioi euro gehiago suposatzen ditu honek. Hurrengo urteetarako aipaturiko 1.500 milioien parte dira hauek, seguru asko, hau izango da jatorria batez ere. Nolanahi ikusita ere, zerga erreformaren benetako eraginak oso urriak izango dira. Zer ikusirik ez, beraz, europar batezbestekora heltzeko falta diren 5.000 milioi baino gehiagorekin.

### **Berri ona ahal da Rajoyren Gobernuak Eusko Jaurlaritzari gehiago zorpetzen uztea?**

Erkidego Autonomoei defizit publikoaren maila finkatzerakoan Madrilen hartzen diren erabakiek ez dutela lotzen defendatzen du Eusko Jaurlaritzatik. ELA bat dator jarrera honekin, baina gai honetan ere, Eusko Jaurlaritzak Madrilen erabakitakoaren baitan jokatzeko egiaztatzen du. Aurreko legealdian, Politika Fiskal eta Finantzari Kontseilura joaten hasi zen Patxi Lopezen gobernua, beste Erkidegoek egiten zuten bezala, han jasotako erabakiak onartuz. ELAk behin eta berriz salatu zuen jokamolde hau, Eusko Jaurlaritzaren defizit publikoaren maila espainiar gobernuak onartzea suposatzen baitzuen.

Urkilluren Gobernuak era berdinean jokatzeko du. Adibidez, 2013rako aurkeztu zuen aurrekontu proiektuan BPGd-aren %0,7ko defizita ezarri zuen, hau da, Rajoyk finkaturikoa. Defizit maila hau berrikusi egin zuen estatuak, eta uztailean, BPGaren %1,2a ezarri zion Eusko Jaurlaritzari ekitaldi honetarako. Eusko Jaurlaritzak %1,3 urria eskatu zuen. Baina azkenik, aipaturiko %1,2a sinatu du Rajoyren gobernuarekin. Eskuduntzen utzikeria larria suposatzen du eginkizun honek, gastu publikoaren maila mugatzean, ondorio oso txarrak dituen, eta gizarte gastuan larriki eragiten duena. Gainera, 2014rako defizit publikoa baxuagoa izatea onartu du Eusko Jaurlaritzak, %1ekoa hain zuzen, hau da, Rajoyk uztailean onartu

zuena. Eta gainera biren arteko akordio garrantzitsu bezala saldu nahi dute! Inork ezin du sinetsi, Gasteizko gobernutik ulertzera eman duten bezala, akordio horri esker, Eusko Jaurlaritzaren defizit publikoan ez, eta beste erkidegoenean kontabilizatuko diren partidak egongo direnik.

### **Hain negatiboa da ELAko akordioari buruz egiten duten balorazioa?**

Ezin dugu adosturikoari eta honek suposatzen duenari buruzko ondorio negatiboak baino atera:

- Daukaten erantzukizuna saihesten saiatzen dira sinatzaileak. Baina erantzukizun handia dute azken urteetan EAE edo espainiar estatuan aplikatu diren politiketan. Onartezina da murrizketen aplikazioan erantzukizun zuzena izan duten alderdiek beste batzuek burutu izan bailituzte hitz egitea. Gogorarazi behar da PSOE izan zela Konstituzioa erreformatu zuena egun gertatzen ari den guztiari izaera estrukturala emateko helburuarekin.

- Ezjakintasunean mantendu nahi da biztanleria, berau lasai mantendu eta kontzientzia kritikoa ekiditeko helburuarekin. Akordioak ez dira berez onak, edukien balorazioa da garrantzitsuena. Politikak bere zerbitzura daudelako txalotzen du "egonkortasuna" botere ekonomiko eta mediatikoak.

- Gero eta langabezia, pobrezia, gizarte babesik eza, eta lan prekarietatea handiagoak izatera eraman gaituzten politikak egonkortzen ditu akordioak. Jasotako neurriekin ez dira ekonomia eta enplegua suspertuko. Alderantziz, krisialdia eta langabezia areagotuko dira.

- Osasungintza, hezkuntza, prestazio sozial e.a.en murrizketa politikekin jarraituko dela hurrengo hile eta urteetan suposatzen du. Enplegua murriztu eta lan baldintzak kaltetzean, zerbitzu publikoen kaltetzean sakonduko da.

- Zerga arloko aldaketek ez dute zerga iruzurra ekiditeko neurririk jasotzen, errenta altu eta kapital errentek zerga gutxiago ordaintzeko era legal asko mantentzen jarraituko dute. PFEZ eta Sozietate gaineko Zergan aldaketak oso txikiak dira eta bilketan oso eragin urria izango dute. Europar batezbestekoarekin zerga presioan dugun aldea BPGd-aren 8 puntu baino gehiagokoa da, eta aldaketa hauek, onenean, pare bat hamarren ekarriko dituzte (0,2 puntu). Hau da, alde batera uzten da bidezko zerga sistema bat, errenta altu eta kapital errentei mesedeko tratamendua bermatuz.

- Bizkaiaz haratago aplikatu ahal izateko, zerga akordioak sinatzaile gehiago behar ditu. Ikustear dago lortuko duten ala ez. Edozein kasutan, adosturiko ia ezer

ez aldatzeko asmoa plazaratu dute sinatzaileek.

- Beste behin ere, agerian geratzen da gai garrantzitsuen inguruko erabakiak eztabaida eta partehartze sozialetik at hartzen direla. Eredu opako eta ez demokratikoa da.

- Informatzioz Gabe, PNV eta PSE-EE-PSOEk titularrak izan dituzte hileetan zehar fiskaltasunaren gaiarekin. Bazirudien akordioa gai horretara mugatuko zela, alderdi bien arteko askoz zabalagoa eta iraunkorragoa den legealdiko akordio bati estaldura emateko balio izan du honek. Bere aurrekontu politika murriztaile eta antisoziala aldatu beharrik gabe hurrengo urteetan Urkulluren gobernuak aurrekontuak onarturik izango dituela suposatzen duen akordioa da. Seguruenik, akordioa, idatzita jasotzen duenaz haratago joango da. PNV eta PSE-EErentzat ustezko onurak, edukirik haratago bilatu behar direlakoan dago ELA.